

JUAN ANTONIO MOGELI OMENALDIA

JUAN ANTONIO MOGELI OROITARRIA ETA OMENALDIA

Markina, 1998-IX-29

Jose Antonio Arana Martija

Ordu batean egin zen Xiri Andonegi eskultoreak egindako oroitarriaren inaugurazioa. Berrogeita hamar harri-bloke dira zeinen gainean agertzen den Mogelen *Peru Abarkatik* hartutako testu bat, harri bakoitzean letra bat jarriz. Oroitarri hau Lea-Artibai Teknik-Ikastetxeko parkean jarri dute, Xemeingo elizaren aurrez aurre. Berezia da benetan eta laberinto eran jarriak direnez harriak, modu bitxian irakurri behar da testua.

Ikastetxeko zuzendaria den Juan Urrutia Txopiteak egin zuen eginkizunaren aurkezpena, eta Lauren Aretxabaleta Goikoetxea, Markinako alkateak ere hitz egin zuen markinarrei eta Euskal Herriari eskainiz oroitarria eta Mogelen mezua.

Hizlariak ordena honetan aritu izan ziren: Jose Antonio Arana Martija, Euskaltzaindiaren izenean “Juan Antonio Mogel eta Markinako euskara” gaia erabiliz. Xabier Elorriaga, eskultoreak eta EHUKo irakasleak azaldu zuen eskulturaren berezitasuna artearen aldetik. Gero mintzatu ziren Josune Ariztondo, Tomas Uribeetxebarria eta Eneko Oregi. Azkenean hitz egin zuen Xiri Andonegi eskultoreak.

Ahamen batekin bukatu zen ekitaldia. Hizlariak, aginteak eta beste aukeraturako batzuk (50 pertsona inguru) Itsas Lur izeneko jatetxean bazkaltzera gonbidatuak izan ziren.

Alboan doa euskaltzainak irakurri zuen hitzaldia.

Juan Antonio Mogel eta Markinako euskara

Duela hiru urte, 1995.eko abenduaren 22an, ospatu genuen hemen, Markinan, Juan Antonio Mogel Urkiza (1745-1804) jaio zenetik 250. urteurrena, Euskaltzaindiak antolatutako erakusketa batekin eta Mari Karmen Garmendiak emandako hitzaldiarekin. Segida ematen genion Eibar jaioerrian hil bereko 6an egindako ekitaldiari. Urteurrena ospakizun hori borobiltzeko, Labayru Ikastetxeak argitaratutako liburua kaleratu zen egun haietan: *Ipuinak*, non Xabier Al-

tzibar Aretxabaleta, euskaltzain urgazleak, Etxebarriko semeak bestalde, bildu zituen Mogelek idatziriko ipuinak, argitaratuak batzuk, baina sakabanatuak, eta argitaragabeak besteak. Gero esango dudanari aurrea hartzeko esan dezadan orain Altzibar adiskideak eman zizkigula 1992an hainbat datu eta xehetasun Mogelen bizitza, idazlan eta berarekiko bibliografiaz Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen *Bizkaierazko idazle klasikoak* liburuan.

Mogeli buruzko ikerlanak asko izan direla aitortu behar da, baina bi aukeratu ditut, euskaltzainek idatzitakoak baitira eta eduki handikoak. Juan San Martinek, Juan Antonio bezala eibartarrak, kaleratu zuen 1959an *Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Bere bizitza eta lanak* liburua. Hogeita hamalau urte lehenago, 1925.eko ekainaren 25ean, Karmelo Etxegarai Euskaltzaindian sarre-ara hitzaldian, *Mogeldarrak eta euskera* erabili zuen aztergai. Eta izenburu honek ematen dit aukera, aurrera jo baino lehen, hiru idazle Mogeldarrak labor baino ez bada ere aipatzeko. Juan Antonio, abadea eta hurrengo osabaz ez naiz orain arituko. Lobak zituen Juan Jose eta Bizenta, nebarrebak. Lehena (1781-1849) Deban jaioa, osabarekin ikasketak egin zituena, hura bezala abade eta 1811tik aurrera Xemeingo parrokoa. Bigarrena, Bizenta (1782-1854) Azkoitian jaio zen, baina haurtzaroan osabarekin bizi izan zen Markinan. *Ipuionak* liburua argitaratu zuen Donostian 1804an, gehienak osabaren eskuizkribuetatik hartuak. Beraz, Mogeldarrak (osaba eta loba) izan ziren Euskal Herriko lehen ipuinlariak, Juan Antonio osaba idazterakoan eta Bizenta loba inprimatzerakoan. Markinatik sortzen zaigu bada euskal ipuinlaritza.

Markinan mintzatzen omen da bizkaieraren hizkerarik hoberena. Ez noa markinarren aurrean esate eta sineste hori ukatzen. Baina bai aitortu behar dut hemen sortu zela bizkaiera literario edo idatziaren gunea. Pedro Antonio Añibarro areatarra eta frantziskotarra (1748-1830) aparte utzita (aurten eskaini dio Euskaltzaindiak Areatza jaioterrian omenaldia, jaio zenetik 250 urte bete direnean), eta Mogeldarren iruzkinak gerorako utzita, esan dezagun hemen bizi izan zela eta idatzi zuela Etxebarriko Bartolome Madariagak (1768-1835), Prai Bartolome de Santa Teresa izenarekin, karmeldarren artean ohitura denez, ezagutua. Ama markinarra zelako, hemen bizi izan ziren eta Markinako euskara erabili zuten Pedro Astarloa frantziskotarrak (1751-1821) eta honen anaia zen Pedro Pablo Astarloa (1752-1806) apologistak. Ezin dugu ahaztu Jose Antonio Uriarte (1812-1869) Arrigorriagan jaioa, frantziskotarra hau ere, esklaustrazio garaian, hots, 1840an Markinara etorri zela eta hemen jardun zuela euskararekiko lanetan 1859an Bermeoko komentura joan arte. Bizkaiko zein herritan aurki dezakegu halako euskararen mintegi eta lorategia?

Wilhelm Humboldt hizkuntzalari alemana Euskal Herritik ibili zenean 1801ean, Markinako euskara garbiena zela eta, urte horren maiatzaren 4an Bizkaiko hiri honetara etorri zen, Muniberen jauregian ostatua hartuz. Juan Antonio Mogelek bilerak egin zituen eta gero gutunezko harremanak izan zituzten. Mogelek berak diosku Markinan ezagutu zuela eta luze mintzatu zirela euskarari buruz eta iberismoaz. Humboldten eta Mogelen arteko harremanak

Justo Garatek aztertu ziteun *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* (1936) liburu ederrean. Louis-Lucien Bonaparte printzea ere, Markinako euskara garbiena zela eta hiri honetan agertu zen 1856.eko iraillean. Han zegoen lehen aipatu Jose Antonio Uriarte eta idazle eta itzultzaile honetaz baliatu zen *San Mateoren Ebangelioa* (1857), *Salomonen Kantuen Kantua* (1858) eta *Asteteren Dotrina* (1862) Markinako euskararen Londresen argitaratzeko.

Euskaltzaindiak *Euskalzaleen Biltzarra* antolatu zuen Mogelen gorazarrez Eibarren 1959.eko azaroan. Hainbat euskaltzain eta euskalzale bildu eta mintzatu ziren, eta Arantzazuko bilera famatua baino lehen (1968koa) Euskaltzaindiaren eginkizun bati ekin zioten, euskara batuari noski, Mogelek honetaz izan zuen iritzia aztertuz. “Mogel arduratu zen —esan zuen Irigarai— idazteko tankeraz, maileguez eta euskalkien hurbiltzeaz. Berak jarritako bidea jarraitu bagenuen, ez ginen euskara idatziaren batasunetik hain urrun izango”. Euskal ortografiari dagokionetik Mogel, Añibarro eta Duhalde ditugu berriztatzailak XIX. mendearen hasieran. Martin Duhalde (1753-1804) lapurtarraren *Meditacioneac gei premiatsuen gainean* liburua bera hil ondoren (Mogel hil zen urte berean hila) 1809an argitaratu zen. *b*, *g*, *z*, *k* kontsonanteen erabilera proposatzen du. Mogelek, ostera, arrazoi pedagogikoengandik, ez ditu *k* eta iparraldekoen *h* onartzen; eta Markinako ahoskera eredutzat hartuz, *f* ere baztertzen du. Juan Antonio Mogel gehiago lotua zen Markinako euskararekin eta Pedro Antonio Añibarro -Villasantek dioenez- baturako bide hobean zebilen: markinarrak *betia*, *maitia*, *osua*, *ogija*, *eztija*, *buruba* idazten zituen, eta besteak, ordea, *betea*, *maitea*, *osoa*, *ogia*, *eztia*, *burua*. Euskara batura heltzeko bidean, Añibarro dugu eredu hobea, hain zuzen. Dena den, R. M. Azkuek biak hartu zituen eredutzat, eta Mogelen *Konfesiño ona* eta Añibarroren *Esku-Liburua* berargitaratuz. *Peru Abarca*-ren hitzaurrean dioskunez, Markinan, Lekeition eta Elorrioren bakarrik erabiltzen dira Bizkaian *-ia*, *-ja* eta *-ba*, baina Añibarroren formak hobeak diren arren, ez da ausartzen Markinako seme baten ahoan ahoskera arrunta jartzen.

Peru Abarca aipatu dut. Mogelen idaz-tankeraz, baserritarren mintzairan zeudela euskararen iturri gardenak baieztatzen zuela esan behar, idazterakoan ere hau zela oinarria sinesten zuen eta: Peru Abarka baserritarra da euskara ondo dakiena eta ez Maisu Juan bizargina, euskara traketsa darabilena. Hara hor Basarte Unibertsitateko irakasle eta ikaslea. Edozein gaiz idazteko euskararen aberastasuna erakutsi eta irakatsi nahi digu Mogelek, ez lexikoan bakarrik, beste hizkeraren arloetan ere. Bestalde garbizalea eta ez garbikeriazalea zen Mogel. Euskara ulergarri on bat nahi zuen, euskaldunak euskaraz hitz egi-tera eta idaztera bultzatuz. Euskaldunen alferkeria eta nagikeria astindu nahian zebilen idazkietan, eta horretan ziharduen eten gabe.

Peru Abarca ezagutzen zutenek gutxi ziren, 1881ean Durangon argitara eman arte bizpahiru eskuizkribu ibili ziren eskuz-esku eta. Kaleratu ondoren irakurriko zuen liburu hau Migel Unamunok, behar bada Gernikan, Concha Lizarraga emaztegaiaren etxean. Unamunoren hitzak dira hauek: “Peru Abarca

egundaino idatzi den libururik edo behintzat nobelarik onena da". Ez zuen irakurri Unamunok Domingo Agirre ondarrutarraren *Auñemendiko Lorea*, Azkueren *Euskalzale* aldizkarian saritua eta aurten argitaratu zenetik ehun urte betetzen dituen. Baina Unamuno aipatu badut, ez da euskal literaturan bere iritziak pisuzkoak direlako. Beste bide batetik dator aipua: Unamunok euskaraz idatzi zuen apurra Markinako euskaraz idatzia da. Arrazoiak? Mogel maite zuelako, Humboldt eta Bonaparteren iritziak, hizkuntzaren kalitateaz, onartzen zituelako, baina, gehien bat, emaztegai eta emaztearen etxean markineraz egiten zelako. Concha Lizarragaren ama Josefa Ezenarro zen, eta hau Markinan jaio-tako Balentin Ezenaroren alaba. Balentinek zeredozer euskaraz argitaratu omen zuen, eta euskal dantzen maisua izan zen. Concharen aitona hau Unamunorekin ezkondu baino urte bete lehenago hil zen Gernikan. Hara hor zein zen emaztegaiaren etxean zegoen giro euskalduna. Baina beste hipotesi bat ere atera dezakegu Ezenarrotarren jatorritik. Etxebarriko *Atzorin* etxeokak ziren. Pio Baroja, Zestoako sendagilea, eta Miguel Unamunorekin harremanak zituen Jose Martinez Ruiz idazle espainiarrak. Zestoa eta Urberuagako bainuetxeetara etorri zela badakigu, eta frogatu beharko dudan hipotesia da inoiz Atzorinen ostatua hartuko zuela bidaian, baita erabili zuen *Azorin* ezizena. Gera bedi oraingoz horretan nire susmoa.

Ehun urte lehenago, 1788an Xemeingo parroko izendatua izan zen Juan Antonio Mogel, bizkaierazko literaturari hasiera eman zion idazlea izan zen. Badu merezimenderik gaur eskaintzen diogun oroitarria eta omenaldia jasotzeko. Hala biz.